

## KOSTUEN EGITURA

Gure proiektuaren kostuak hainbat izan dira, alde batetik gure zaborrontzia egiteko materiala ez dugu erosi izan behar, gure taldeko baten gurasoak itxi egin digutelako material guztia, beraz parte horretatik ez dugu dirurik gastatu. Baina, beste gauza batzuetan dirua gastatu behar izango dugu, adibidez publizitatea egin digutenei bere soldata txikia eman diegu guztiei, udaletxeari ere ordaindu behar izan dugu, bilera asko antolatu dituztelako hainbat herrialde eta hirietan.

Beste alde batetik, esan dugun moduan, astero zaborrontzia hustuko dugu baina zaborrontzia horretan hondakin mota guztiak nahasiko dira, beraz astero enpresa batera eramango dugu zabor guztia (taldearen osaba baten kamioian) eta haiei ere hondakinak antolatzeagatik bere soldata eman behar diegu.



Gainera, zaborrontzia itsasoaren barnean egongo da, beraz hori bertan ipini ahal izateko gure taldeko batek itsasontzi bat dauka eta haraino bere itsasoan joango gara, baina guk ezin izango dugu itsasoaren barnean jarri, horretarako pertsona bat kontratatu dugu (hori egiten dakiena) eta berak lagundu egingo digu aste guztietan zaborrontzia kentzen eta jartzen, beraz, berak ere bere soldata eukingo du.



Hala ere, ez dugu ahaztu behar gure proiektua denon onerako dala eta denok parte hartu behar dugula, helburua aurrera ateratzeko. Astero kutsadura murriztu behar da eta jendea jakin behar du hondakinak edo edozer gauza lurrera edo itsasontzira botatzea oso txaro dagoela eta gure bizitza okerrera egiten duela horrela jarraitzen badugu, beraz, gure ustez gure proiektua oso ondo dago denon bizitza hobetu ahal dugulako eta animaliena baita, ez du gauza txarrik ekartzen.